

ERRABAL
J | A | Z | Z

Miguel Salvador Trio
eta Javier Alzola
Código

94 PK. 20590 SORALUZE
Tel: +34 943 753 016
Mail: errabal@hotsak.com
www.hotsak.com/Errabal
www.errabaljazz.com

Errabal (ER-075)
2015
CD



Gitarra jotzaile bilbotarraren hirugarren diskoa, Javier Alzola saxo jotzailearekin batera apailatua. Eta hori ez da harritzekoa, urteak joan baitira elkarrekin ezin hobe moldatzen direnetik nola agertokietan hala agertokietatik kanpora, jaialdi, klub eta kontzertu askotan jo baitute azken urteotan elkarrekin. Batasun horretan du abiapuntua ñabarduraz beteriko zortzi gaiak osatutako lanak. Lan horretan mintzaira arina landu dute Miguelen gitarra eta Javierren saxoak, berezko hotsen Kodea sortu dute, doinu hauskor bezain barnekoiak (“Una hora com Margot” eta “Donde estabas tu”), indarrez eta energiakz beterikoak (“Código” eta “Bienvenido Mr Swing”)... aurreko lanen moldeko beste gai batzuk... “Requiem” eta “Santuario” bezalako gai hipnotikoak, “Mirando para adentro” gai mehe bezain leuna...

Minimalista da musika, goxoa eta bidaiaria batzuetan, zakarra eta abangoardista besteetan, hotsen arteko kontrastez beterikoa beti, sentsazioak nahasi egiten baitira soinu sendo eta une magikoez beterikoa eskaintzeko, entzulea barne bidaia bat egitera gonbidatuz. Disko sakona da, entzuleak gozatu egingo du era askotako erritmo eta tinbre aldaketekin, ezertxok ere ez dio ihes egingo.

Hasier Oleaga eta Jon Piris batera eta kontrabaxu jotzaileek osatzen dute laukotea, bikote hori lehendik ere Miguelekin lan egina zen azken horren lanetan.

Miguel Salvadorren hirugarren lan honetan, gure garaiko euskal jazzaren joera gaurkotuena eskaintzen digute lau musikariok. Lan bikaina harmonia biribilean.

MIGUEL SALVADOR

Gitarra jotzaile bilbotarra, Portugaleten bizi da. Iñaki Salvadorrekin hasi zituen ikasketak, eta inprobisazio, harmonia eta moldaketa eskolak jaso zituen harengandik. Gero Musikenen ondu zituen ikasketak, Joaquin Chacón, Jose Luis Gamez, Gonzalo Tejada eta beste batzuk izan zituen irakasle.

Gaur egun irakaskuntzan ari da, Jazz moldeko gitarra, harmonia moderno, inprobisazio, konbo eta musika hizkuntza eskolak ematen ditu Andres Isasi Musika Eskolan (Getxo) eta Mr Jam eskolan (Deustu).

Musikari gisa penintsulako eta nazioarteko musika esparruaren zati handi bat ezagutu du Mauri Sanchis Band taldearekin, eta Zubipeko Swin taldeko kidea izan da, banjoa eta gitarra jotzen zituen talde hartan. Gaur egun Marmara Dixieland Band (New Orleanseko musika egiten du) taldearekin aritzen da banjoa eta gitarra jotzen. San Javier (Murtzia), El Ejido (Almeria), Parla (Madrid), Pori (Finlandia), Bilbao 365, Getxoko Jazzaldi eta beste jazzaldi batzuetan parte hartu du musikari gisa eta hainbat taldetan, eta, besteak beste, Iñaki Salvador, Gonzalo Tejada, Jesús Sant Andréu, Mauri Sanchis, Javier Vargas, Javier Alzola, Deim Robinson, Joaquin Chacón eta Mikel Andueza bezalako musikari handiekin partekatu du agertokia.

2007an bere taldea osatzeko erabakia hartu zuen, eta bere gaiak ontzen eta apailatzen urte bete eman eta gero, hainbat kontzertu eta jaialditan jo zuen jarraian bakarka egindako lehenengo diskoa grabatzeko, **Miguel Salvador Project** (Errabal, 2009). Lan hori hainbat antzoki eta jaialditan aurkeztu zuen (Getxo, Bilbao 365, 2010ko Debajazz, Santurtziko Jazz eta Bluesaldia, Valladolid).

2011ko ekainean ikusi zuen argia bere bigarren lan diskografikoak, “**Viaje a Etreum**” (Errabal). Besteak beste Donostiako Jazzaldian, BBK jazzaldian, Elorrioko Nazioarteko Jaialdian, Jazzber jaialdian, Neguko Bidaia jaialdian (Getxo) eta Jazzaharrean (Gasteiz) ezagutarazi zuen bigarren lan hori.

2012. urtean lehenengo aldiz konposatu zuen zinemarako, zehazki 2012ko Mendifilm Jaialdian estreinatutako “Bajo Cero” film dokumentalarentzat. Egoi Markaida izan zen dokumental horretan zuzendaria, eta ikusleek bozkatutako film onenaren saria jaso zuen.

Zinemaren historian filmatutako aurreneko mendiko filmarentzako musika apailatu zuen urte horretan bertan. Film hori, “Cervino”, 2012ko Mendifilm jaialdian eman zuten lehenengoz.

2015eko maiatzean egile honen hirugarren diskoa kaleratuko da, **Código**. Ohiko musikariez gain, Javi Alzola saxo jotzaileak parte hartzen du lan honetan.

**JAVIER ALZOLA**

Basaurin sortua, bere kabuz hasi zen musika ikasten. Bilbon eta Madrilgo Taller de músicos eskolan egin zituen musika ikasketak. Gary Bartz, Roy Haynes, David Kikovski eta beste maisu batzuk izan zituen irakasle hainbat Jazz mintegitan, eta gero Parisko C.I.M. (musika ikaskuntzen zentroa) ikastegian eman zuen izena ikasle gisa.

Hainbat talderekin jota sari ugari lortu ditu beste hainbeste Jazzalditan (Getxo, Eivissa, Mallorca, Donostia).

Nola nazio mailako hala nazioarteko jaialdi askotan parte hartu du: Amberes, Poznan (Polonia), Londres, Soberato (Italia), Córdoba (Argentina), Buenos Aires, Santiago (Txile), Shanghai, etab. Bizkaiko musika kontserbatorioetan Jazzle eta Mr Jam eskolak eman zituen, eta saxo jotzaileentzako inprobisazio mintegiak zuzendu zituen. Era berean, urteak eman zituen lanean Tebista saioetarako lanak ontzen (T. Madrid, ETB 1, ETB 2, TVE). Arte Eszenikoen Saria jaso zuen 2008. urtean.

Fito&Fitipaldis rock talde ezagun bezain arrakastatsuan hasiera-hasieratik ari den musikari beterrano bakarra da, bederatzi disko grabatu ditu talde horrekin, eta urrezko lau disko, platinozko bi disko eta diamantezko disko bat lortu ditu talde berarekin. Eskarmentu handia eta molde askotara egokitzeko gaitasun aparta izanik, estilo askotako era guztietako artistek nahi izaten dute ondoan nola zuzeneko emanaldietan hala estudioetako grabazio lanetan; horien artean aipagarri dira, besteak beste, Ariel Root, Andres Calamaro, Juan Carlos Perez, Andrej Olejniczack, Daniel Amat, Dolphin Blues Band, Platero y tu, Extremoduro, Dani Perez, Gonzalo Tejada, Jose Luis Canal, Miguel Salvador, Gontzal Mendibil eta Kepa Junkera.

Grabazio saioetan ere parte hartua da artista ezagunekin batean, New Yorken Richie Rosembergekin (Bruce Springsteen taldeko tronboia) eta Leonen (Frantzia) Pete Thomas (E. Costelloren bateria jotzailea) eta Andy Hessekin (B. Crowes taldeko bateria jotzailea), Jose Blane ingeniari handiaren eskutik.

Infusion jazz talde seminaleko kidea izan zen, eta urteak era askotako jaialditan jotzen emanda, hainbat musika txapelketatan gertatu zen saridun.

Gaur egun jarraitzen du Fito&Fitipaldis rock talde taldearekin lanean, baina Miguel Salvadorrek jazz estiloan ondu duen azken lana ari da aurkezten egunotan.

HASIER OLEAGA

Musika ikasketak Bartzelonako "Taller de Músics" ikastegi ospetsuan eta "Musikene" Euskal Herriko Goi-mailako Musika Ikastegian egin eta osatu zituen. Egun Donostian bizi da musikari hau, eta lan diskografiko askotan parte hartu duela esan behar du. Soilik jazzaren esparruan, besteak beste Nevermind Trio, The Heckler, RS Factor, Kase-O Two Quartets Experience, Sant Pau 44 Quartet, Miguel Salvador Project, Iñaki Salvador Trio, Zafari Project, Teresa Zabalza Quintet, Jeronimo Martin Trio, Asociación Libre Orquesta talde eta artistei lotuak aurki dezakegu haren izena. Bestalde euskal abeslari ezagunenetako batzuei (Mikel Laboa, Maddi Oihenart, Gari eta Mikel Urdangarin) lagundu die, eta Ruper Ordorikaren Mugalariak taldeko kidea da egun.

Era berean espainiar estatuko jazzaldi garrantzitsuenetan jo du Hasierrek, eta nazioarteko jazzaren munduan ospe handia duten David Berkman, Guillermo Klein, Jorge Rossy, Aaron Goldberg, Joe Smith, Jean Marie Ecay, Carmen Canela, Gorka Benítez, Dusko Gojckovich, Guillermo Calliero, Donald Harrison, Wycliff Gordon, Terrell Stafford eta Chris Kase bezalako musikariek batera jo du. Bestalde, ezin konta ahala aldiz jo du Madrilen bizi den Bob Sands saxo jotzaile iparramerikar ospetsuarekin.

Bere taldeko burua da, eta bi lan eman ditu argitara berak ondu eta apailatutako gaiekin: *Cantus Caterva* (Errabal, 2012) eta *Cantus Caterva II* (Errabal, 2014).

JON PIRIS

Bilbon jaio zen, 1967an. Kontrabaxu ikasketak egin zituen Bilbon eta Madrilen, eta azken hiri horretan lortu zuen kontrabaxuko goi mailako titulua. Kolaborazio lanak egin ditu besteak beste, Bilboko Ganbera Orkestrarekin, Bilboko Orkestra Sinfonikoarekin eta Nicanor Zabaleta Orkestrarekin. Zubipeko Swing jazz taldeko eta Malu Gorostiagari laguntzen dion taldeko kontrabaxu jotzailea da. Hainbat urtez talde egonkorra osatu zuen Peer Wyboris eta Jose Luis Canal musikariek batera eginik. *Memoriaren Mapan* izenburuko biran, duoa osatu zuen Ruper Ordorikarekin. Hasier Oleagaren *Cantus Caterva II* eta Miguel Salvadorren *Código* dira Jonen azken proiektuak.